

MARTIN DE LANDERRECHE APHEZAREN ERASKUNTZA

Erregelamenduak dioenaren, eta, hemen garenaz geroz, gure bihotzek ere diotenaren arabera, Euskara, gure mintzaira maiteari, *iraupen* eta *hedamen* emateko badiogu.

I

Iraupen horri dohakionaz, mintzaira batek iraupenik ez du, ez balinbada jendetan erabilia aurkhitzen.

Erdaraz mintzo garenetan, lokhartua dagokigu Euskara. Eta lo hura luzatuago edo erreberrituago, eta gure mintzaira arrotzenago eta ahanzterat ematenago da. Eta azkenekotz, bere lo hura aski luza dakion eta, bertzerik ez da harentzat, heriotzea bera baizik.

Gerorat, naski bai! latina eta greka bezala, ikhas ahal lezakete batzu bertzek Euskara; ziriaka, hebraika eta sanzkrita bezala, jakintsun berezi batzuk, ikhas eta gorets ere balezakete! Bainan, ahotik ahorat ez balitz jendetan erabilia, «langue morte», bilhakutzen, hiltzen lakiguke *Euskara*.

Ez zautzue bada, Lagun maiteak, auhendarri eta ahalkagarri gindukela, arbasoetarik dathorkigun mintzaira, menderen mendetako, behar bagindu, gure ezacholakeriaz, erdara baten edo bien zangopetarat erortzen eta hala suntsitzen ikhusi? Ez darotzue aiphamen horrek berak gatzatzen bihotzean odola?

Bizkitartean horra, gutarik batzuen orhoitean, zer egina zaioten, ondikoz! eta zer eginez dohakioten, *Alabes* eta *Nafar*, Euskaldunak milaka galduak dituzten, eta egunetik egun oraino galtzen hari zaizko teneri!

Ikusten dut, Lagun maiteak, gauza hoikien aiphamenak ahuendatzen zaituzte! Bainan ahuendatzen ere zerbeit balim bada, Euskalzale egiazkoarentzat gutiegi da!

Ha bada! dugun ikhus, zeinek gure tokietan, zer egin dezakegu. Euskara nahi balimbadugu irauten eta bizitzen ikhusi.

§ 1. — Hortarakotz, egin behartzen diren gauzetarik beharrena, eta naski bertze guziak berekin bateratzen dituen da, gure etche, gure bazter eta gure ingurumenaren, erdaratik eta erdaldunetarik garbi atchikitzea; edo, hitz osoz errateko, behar ditugu bitezpada, gure sehi, gure langile, gurekin egiteko duten sal-erostun, bai eta gehiago dena, gure adiskide berezienak, Euskaldunetarik hautatu; hitz batez

errateko, behar dugu nahi izan, nihorekin baino hertsikiago, Euskaldunekin atchiki.

Atzartasun horrek, eta bakharrik horrek ekhar dezake, eta nahi balimbadugu ekharriko du, gutarik bakhotcharen *Euskaraz* jarraikitasurekin mintzatzea, eta hori ez bakharrik gure bazterretan, bainan bai oraino, Euskalduna Euskaldunarekin aurkhi gaitzeken urhaspide guzietan.

§ 2. — Eta, urhaspide horri jarraikitzea, Nere Jaun maiteak, egin dezakegu, beldurtu gabe Euskararen alderat ichuriegia izan gaitzekela, eta gure hurrek egungo egunean baitezpadako dituzten erdarak, Euskararengatik, uzkurregi lituzketela.

Gauza bat bada ezen zinez egia, zinez ongi ezagutua, zerik eta mintzaireretan sarthuago, eta hek batzu bertzeren ondotik, edo batzu bertzerekin hartuago, eta hambatenaz errechkiago, garbikiago eta barnagodanik ikhasten direla.

Badakizue *Mezzofanti*, berrogoi eta hamar mintzaira bazakizkien kardinalea. Bere zoriona zuen bakhotcharen mintzairarekin, bakhotchari hitz egitea. Horrengatik ere, bere adiskidek Mendekoste bizia deithua zuten. Egun batez bada, Antonio Abbadia-ko gure jakintsuna bere aintzinean zuetarik, erran zioen:

« — Zein da zure sor-lekhuko mintzaira, hartarik hari gaitzentsat.

« — Euskara, Jauna, ihardetsi zioen.

« — Ah! zuen egin kardinaleak, horiche nik ez dakidana da! Bainan emandazu gaurtik Hizkunde edo Gramatika bat, eta bihartik mintza gaitzke *Euskaraz*.»

Nondik zohakion orttea kardinateari, mintzaira ede! baten hain ephe taburrez trartzearen errechtasuna? Ez bakharrik bere baithako atzartasun handitik, bainan bai, mintzairak ikhastearen bidez, mintzaira arrotz bati nondik loth eta hura nota har, nihork ere baino hobeki jakitetik. Halaber bada gure hurrek ere, bere Euskara garbiki eta barnagodanik hartuago, eta hanitzek errechago dukete beharrezko erdara bat edo bien, eta beharrez gehiagokoen hartzea eta atchikitzea.

§ 3. — *Iraupen* horrentzat halaber, Euskalzaleek bere ingurumenetan, eta Aphezek bere elizetan egiten dutena, ez othe lezake *hauzaphez* batek Herriko-Etchetik zorionez egin? Ez liduritzueke, Jaunak, erdaraz erasan behartzen direnak, Euskaraz halaber urhats onez erasan laitezke? Erdaraz irakurtzeko athetan hedatzen direnek, Euskaraz orobat hedatuak eta irakurtuak izateko baluketela? Holako urhaspide bati esker, Euskara adituago eta irakurtuago laiteke eta iraupen sendoagoko bat baluke.

Gauzen hortarat hel-arazteko, erran! Jaunak, erran! adiaraz hortako gai zaretenek, ez othe lituzken bekar, Euskaldun erdara gabeko, mende-

tako zuzenatarik biluzi, odolaren eta diruaren pheia, eta bai bertzerik ere eratchikitzen zaizkonak, ez othe lituzken behar, gauzak nola dabiltzan, bere begiz irakurri, bere beharrez aditu? Ez othe lohakioken ere Euskaldun choilari den hobekiena, bozkatu behartzen deneko; jakitea, nork duten hartaz esker, gauzak Euskaraz zabalduz, edo zeinek ez luketen, harentzat ilhumpe den erdarapean, gauzak estatiak atchikiz?

Hotako zerbeiten abiadurak hortchet Irunen badituzte: *karrika guzien izenak*, izkin guzietan hedatuak, erdaraz eta *Euskaraz*. Izenen Euskararat itzultzaitea, eta naski Euskaraz hekien emanak izatea ardietsi zuena zen *Jeneral Murga-ko*, euskalzale bizkaitar boz eta maithagarria. Hirur urthe badu Jainkoak bereganat deithu zuela, bainan ez dute ezagutu dutenek ahantziko haren amulsutasuna.

Gutarteko lagun gazteak, zuek ere, herriko josta-aldietan, gazte lagunekin Euskaraz ihardokiz, hambatenaz Euskara maitha-araz zindezakete, gazteria onez ahurrean zindukete, eta herritar guzien bihotzez jabe zintezkete.

II

Hedamenari dohakionaz, Euskararen hedatzaile dire, kanta berri eta koblakak, eta hobeki, argitaratzen diren liburu, urthekari, hilabete-kari, egunkariak.

Hoikien artean, ez ditugu zeren egun aipha, Euskararen garbitasunari eta edertasunari, edo iragan mendetako haren urhaspideari behatzen zaizkiotenak, ez garenaz geroz ere mintzo Euskararen gutarteko iraupenaz eta hedamenaz baizik.

Sail aphaltaren eta beharren hontan ordea, badugu zerik aipha detzagun Euskararen bi hedatzaile berezi, Euskalzate egiazko edo zeinek esker handi izateko diotegunak.

§ 1. — Bi hedatzaile hoitarik zaharrena da *Fedearen Propagazioneko Obraren Urtekaria*. Hitz hoik tilulutzat dituzten liburuttoak, frantsesetik Euskaratat itzuliz egiten dire, eta badire 750, bakhotcha 48 plama edo horri-aldetakoak, Frantzia-aldeko Euskal-Herri guzirat bi hilabete-tarik atheratzen direnak.

Fedearen Propagazioneko Obrarentzat, asteko sosa eman nahi dutenek irakur detzakete, eta ez izan beldurrik ez direla bertze asko, hoikien eskutik hartzen eta irakurtzen dituztenak.

Euskara ahalaz garbiz eta aphainduz agertzen dire, eta 48 horri-aldetako hoikien hedadurak ekhartzen du, ez dela urthe buru batetik bertzeraino behinere gelditzen hoikien irakurtzapena.

§ 2. — Hedatzaile hoitarik bigarrena eta naski prezagarriena dugu *Eskualduna*.

Egunkari edo albistari zorionezko hoi, zortzitik argitaratuz, sutan airatzen da, burdin-bide, errege-bide, bide chidor eta chendra guzietan gaindi, eta heltzen dela diote bostpasei mila irakurtzailereren eskuetarat. Eta, baldinetariak gogo eman nahi badugu, lehembiziko hoikien eskue-tarik, bertze hamar bat, irakurtzailetarat badohala, ikhus dezakegu hortik, *Eskualdunak* astetik asterat badituela berrogoi eta hamar bat mita irakurtzaile.

Eskualduna ere, Euskara garbiz eta aphainduz dabillanaz bertze, Frantzia-aldeko Euskararen hirur minza-moldeak baditu, eta da buru hortarik Euskararen hedatzaile aberatsena.

Bi hedatzaile hoik partzen nituzke; ez choilki bere bideko bazterra heza dezaken ibai den ederreneko bati, hainan bai oraino hobeki, tenore beharrenetan jautsiz, eremu baten gain-beheraka guziak atzemanaz, landare eta zuhamu mota guzitakoeri, hostatze, loratze eta uzta baliosenez bethetzea eman dezoketen *uri erauntsi* gozo eta nasai zorionezko batzueri.

Hala hala, nihoiz balinbagindaki, Euskararen hedatzaile hoitarik, nahiz bata eta nahiz bertzea, bere urhaspidetan nekhez labilzkeela, gure eginbidea ginduke, bai *Biltzarrak*, bai batbederak, beharrik lukeenari, ahatikako laguntzaren egitea.

Irakur detzagun, Euskalzale maiteak, eta ahal dugun bezambatean irakur-araz *Eskualduna* eta *Fedearen, Propagazioneko Urtekaria*.

Akhabatzeko, erranen othe dut?... Eta zergatik ez?...

Derasatenak badire, zerik eta, Euskaldunen artean, basak eta barba-roak bagarela. Nik ere baderasat badirela: baina hek ordea baxharrik, Euskaldun odolaren garbitasunaz eta Euskal-mintzairaren iraupenaz acholarik ez luketenak!

Gutartean ez gaitezke halakorik izan, Euskalzale maiteak!

Aitzitik! bai! nahiko ditugu, Biltzarraren urthe berri huntan, ahalikako guziak egin *Euskararen alde*, nota nahiko baititugu, egun urthe bethe, Jainkoak nahi balinbadu, bilkhuraren aintzinean ezagut arazi egin dituzkegunak!

MARTIN LANDERRECHE, aph.

Bilkhura akhabatzearekin, *Nere Jaun Larreta*, Euskal-Esnaleko sekretarioak erranik, egiteko gindukeela, Euskalzaleen laurazka edo bosnazka, hilabetetik, bere herri-alde batetarat biltzea, Landerreche aphezak gauza hori daiteken baliosena khausitzen du eta dio bilkhura hoitarat eremateko laitezkela:

1º. — Erdal-hitz dabilzanan orde, atzeman daitezkeen *euskal hitz* garbi, nekhezago atzeman eta haimbertzenaz baliosagoak;

2º.— *Euskal-hizkuntza* edo *Kantabrisimo*, Euskarari euskal-itchura begira dezoketen mintzatzeko molde bakharrak; hala nola: *Gogoak emanik; berean bere; aho churi; ez edo nor*, etc.

3º.— *Zuhur-Hitz*, jendekiako aztura guziaren ezagut-araztekoak; nola baitire, *athorra hurbil eta larrua hurbilago; Geroa, alferraren leloa*, etc.

Erran ere du, Zuberotar mintzaira eta jendekia, gutartean atzarrienak eta distirantenak balimbadire, *hizkuntza* eta *zuhur-hitz*, nola nahika derabilzkateneri, diotela zor. Bil daitezela eta ingurumenean aipha, hedatuko dire, eta guri ere *atzartasun* eta *distiradura* bera urthe laburrez eman dezakegute.

Erran den Eraskuntza eta azken hitz hauk, orobat onhartuak izatu dire.

